



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2018

KONTSUMOBIDE

1. Kontsumitzaileen elkarreentzako diru-laguntzen programa, funtzionamendu-gastuak, laguntza juridikoko gastuak, kontsumo-proiektuak egiteko gastuak eta berrikuntza teknologikoko proiektuak egiteko gastuak ordaintzeko..... 2
2. Toki-erakundeentzako eta horiek sustatzen dituzten erakundeentzako diru-laguntzen programa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak sustatzeari eta babesteari begirakoak 3



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kontsumitzaileen elkarteentzako diru-laguntzen programa, funtzionamendu-gastuak, laguntza juridikoko gastuak, kontsumo-proiektuak egiteko gastuak eta berrikuntza teknologikoko proiektuak egiteko gastuak ordaintzeko

2.- Araua

EBAZPENA, 2017ko abenduaren 20koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendariarena, zeinaren bidez arautzen baita kontsumitzaileen elkarten funtzionamenduko, laguntza juridikoko eta kontsumo-proiektuak eta berrikuntza teknologikoko proiektuak gauzatzeko gastuak ordaintzeko diru-laguntzak ematea.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

Programaren deialdia: EHAA, 247. Zk. 17.12.29.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/12/1706291e.shtml>

Emate-erabakia: EHAA, 104. Zk. 18.05.31

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802869e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Kontsumitzaileen elkarteek dauzkaten funtzionamendu-gastuak, laguntza juridikoko gastuak, kontsumo-proiektuak egiteko gastuak eta berrikuntza teknologikoko proiektuak egiteko gastuak ordaintzeko xedea daukate laguntza hauek. Laguntzak jaso ahal izateko, kontsumitzaileak babestea eduki behar dute helburu bakartzat, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarten Erroldan inskribatuta egon behar dute eta Euskal Autonomia Erkidego osoa hartu behar du beren jarduera-eremuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018an, kontsumitzaileen hiru elkarteri esleitu zitzaizkien laguntzak, eta lan hauek egin dituzte:

- Kontsumitzaileen arreta: guztira, 5.558 kontsultari eman diete arreta, eta kontsumitzaileen 1.440 erreklamazio kudeatu dituzte.
- Laguntza juridikoa: laguntzaile juridikoek aurrez aurreko arreta eman diete kontsultei, kontsumitzaileen 1.157 demanda aurkeztu dituzte zenbateko gutxiagoko epaiketetan, eta 4 bukarazte-akzio aurkeztu dituzte.
- Berrikuntza teknologikoko proiektuak: sare-sozialak eta teknologia berriak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Emaitza
Egindako ekintza judizialen kopurua	1161
Egindako kontsumo-proiektuen kopurua	0



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Toki-erakundeentzako eta horiek sustatzen dituzten erakundeentzako diru-laguntzen programa, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak eta interesak sustatzeari eta babesteari begirakoak

2.- Araua

AGINDUA, 2010eko otsailaren 17koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena. Honen bitartez, tokierakundeei eta haiek sustatutako erakundeei dirulaguntzak emateko programa arautzen da, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko.

EBAZPENEA, 2017ko abenduaren 11koa, Kontsumobideko zuzendariarena, toki-erakundeei eta haiek sustatutako erakundeei kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide eta interesak sustatu eta babesteko diru-laguntzak emateko 2018ko deialdiaren berri emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAAri Hiperesteka)

Programaren araua: EHAA 37. Zk 2010.02.24

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2010/02/1000950a.pdf>

Deialdia: EHAA 247. Zk 2017.12.29

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2017/12/1706314e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Honako gastu hauek ordaintzea da laguntzen xedea: kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoetarako zentroen eta zerbitzuen instalazio-, birgaitze- eta ekipamendu-gastuak edo toki-aldaketarako gastuak, kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoetarako zentroen eta zerbitzuen funtzionamendu-gastuak, bulego horiek egiten dituzten askotariko prestakuntza- eta dibulgazio-jardueren gastuak eta kontsumo-ikuskapeneko jarduerak egiteko gastuak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2018an, 37 erakunderi eman zaizkie laguntzak, kontsumitzaileei informazioa emateko udal-bulegoen funtzionamendu-gastuak ordaintzeko. Horri esker, bulego horiek kontsumitzaileen erreklamazioak eta kontsultak artatzea eta informazio- nahiz prestakuntza-jarduerak garatzea sustatu da.

Era berean, 7 erakunderi eman zaizkie laguntzak kontsumo-ikuskapeneko jarduerak garatu ditzaten. Jarduera horiekin, areagotu egin da merkatuan kontsumitzaileen eskura jartzen diren produktuen segurtasun-kontrola.

Bestalde, 3 erakunderi eman zaizkie laguntzak bulegoetako ekipamendua eta instalazioak hobetu ditzaten.



6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Emaitza</u>
Irekita dauden bulegoen kopurua	37
Erantzundako kontsulten kopurua	5.558
Erantzundako erreklamazioen kopurua	1.440